

Behar bat asetzeko, jendeari lagungarria egingo zaion produktu bat sortuko dugu jada asmatuta dagoen objektu bat transformatuz. Denok gaixo egoten eta gaizki sentitzen gara noizbait eta orduan sendagaiak hartzen ditugu. Hainbat motatako sendagaiak daude baina erosoena pilulak dira. Jende askok zaitasunak ditu horiek tragatzean, askok ezin dute lortu.

Pilula hartu behar eta etxetik kanpo zaudenean hainbat gauza eraman behar dira gainean pilula errazago tragatzeko: koilara bat, pilula, pilula irensteko produkturen bat, adibidez jogurta... Hortaz, materiala murrizteko, pilulak apurtuko litukeen gailu berri bat sortuko dugu.